

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

O-NOZren ospitaleek gaixoen baimen espresa beharko dute haien presentziaren eta kokapenaren berri emateko

Araudi berria Datuen Babeserako Araudi Orokorrean (UE) 2016/679 eta Datu Pertsonalak eta Eskubide Digitalak Babesteari buruzko 3/2018 Lege Organikoan babesten da.

Asteartea, 2019.eko otsailak 5

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak (O-NOZ) araudi berria onartu du, eta, hemendik aurrera, sarrerako zerbitzuek gaixoaren baimena beharko dute haren presentzia eta kokapenari buruz informazioa emateko galdetzen duen pertsona orori, senideei nahiz gainontzeko bisitei. Modu horretara, Nafarroako ospitaleetako informazio-guneek informazio hori ahalbidetuko dute baldin eta ospitaleratua izan den gaixoak horretarako baimen espresa eman badu.

Datuen Babeserako Araudi Orokorrean (UE) 2016/679 eta Datu Pertsonalak eta Eskubide Digitalak Babesteari buruzko 3/2018 Lege Organikoaren babesean, araudi berria Nafarroako Ospitale Guneetan (Nafarroako Virgen del Camino ospitale zaharra eta Ubarmin klinika), Tuterako Reina Sofia ospitalean, Lizarrako Garcia Orcoyen ospitalean eta San Francisco Javier zentroan aplikatuko da.

Beste osasun-zentroetan ospitaleratutako gaixoekin era berean jokatu da, salbuespen-egoeretan izan ezik:

-Larrialdietan ospitaleratutako gaixoak: prozedura hori soilik gelara eramaten direnean aplikatuko da.

-Konorterik gabeko gaixoak

-Desagertutako pertsonak

-Hildako pertsonak



Por la Legislación de Protección de Datos, no podemos facilitar la ubicación de las personas ingresadas sin su autorización expresa.

- Reglamento General de Protección de Datos (UE) 2016/679
- Ley Orgánica 3/2018, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales



Datuen babeserako legeria dela-eta, ezin dugu esan non dauden ingesatuta pertsonak, haiek berariazko baimena eman ez badute.

- Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorra (EB)
- Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalen bermerako 3/2018 Lege Organikoa



Araudi berriaren berri ematen duen kartela.

-Estatuko Segurtasun Indar eta Kidekoaren eskaerari erantzunez

Araudi berriak orain arteko prozedura aldatzen du, zeinetan ospitaleak gaixoari buruz informazio osoa ematen zuen, gaixoak berak idatzizko oharpen baten bidez kontrakorik adierazten ez bazuen behinik behin.